

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Udal zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketaren hasierako onespena

Urizaharreko Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko urriaren 10ean egindako bilkuran, honako zerga hauek arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa onartzeko erabakia hartu zuen: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, jendaurrean jartzen da hasiera batean onetsitako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskal horien aldaketen testu osoa, udal bulegoetan, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean. Era berean, berariaz adierazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko hartutzat joko dela.

Peñacerrada-Urizaharra, 2023ko urriaren 11

Alkate-udalburua

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO